

Ekintza Planaren ezarpen mailaren ebaluazioa 2014

Tokiko Agenda 21

ESKUALDEKO PLANA



SARRERA

Dokumentu honen helburua, eskualdeko jasangarritasunari buruzko informazioa eskura izatea da, horrela, udal kudeaketaren gardentasuna eta herritarren parte hartzea bultzatuz.

Txostena gure eskualdeak *“Tokiko jasangarritasun politiken ebaluazio eta jarraipen programaren”* zortzigarren edizioan parte hartu izanagatik eratorria da. Hau Udalsarea 21ek bere kideen artean urtero bultzatzen duen programa da, zeinetan Sareko udalerri guztiek metodologia komun bat jarraitzen duten.

Programa honen baitan, **Ekintza Planaren ebaluazioa eta jarraipena burutu da urteroko ezarpen maila ezagutzeko**. Guztia, Udalsarea 21ek horrelako prozesuetarako prestatutako Gida metodologikoaren irizpideak jarraituz egin da.

Guzti hau, Tokiko Ekintza Planean inplikaturako Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoko langileen parte hartzeari esker egin ahal izan da, Tokiko Agenda 21aren baitan gauzatu diren ekintzei buruzko informazioa erraztu baitute.


Bestalde, Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoak, kanpo laguntza teknikoa kontratatu du. Honek, Programan parte hartu duten 80 bat udalerriei laguntza eman die eta prozesua orokorrean bideratzeaz eta ebaluazio bakoitzean Gida metodologikoan ezarritako irizpideak betetzeaz arduratu da.

Informazio gehiago: www.udalsarea21.net

EBALUAKETAREN EMAITZAK

Planaren ezartze-maila 2014 urtean %15ekoa da.

1. Grafikoa: Ekintzen ezartze-maila 2014 urtean.



2. Grafikoa: 2013 eta 2014 urteetako ebaluazioaren emaitzak eta 2020 urterarte beste udal planen eboluzioaren batez bestekoa.

